**UDAL-BATZARRA 12/05**

**UDAL-BATZARRAK, 2005eko ABENDUAREN 29an EGINDAKO OHIZKANPOKO ETA URGENTZIAZKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

**PARTAIDEAK:**

**ALKATEA:**
Fidel Azpiroz Arrillaga

**ZINEGOTZIAK:**

Jose Ignacio Otermin Garmendia
Nieves Alarcos Martinez
Mº Carmen Egurza Salaberria
Kepa De la Iglesia Sánchez
Jesús Mª Arsuaga Lizaso

**IDAZKARIA:**
Nekane AGIRRESAROBE ETXEBERRIA

ANOETAko Udaletxean, 2005ko abenduaren 29an goizeko hamaika terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizkanpoko eta urgentziazko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik eta Mikel Zubillaga Galarraga eta Silvia Dos Santos Leite Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

**1.- BILKURA PRESAZKOTZAT JOTZEA.**

Alkate jaunak bertaratutakoei ondorengoa adierazten die:
*"Ohizkanpoko eta urgentziazko pleno honi hasiera emango diogu. Lehenengo puntu bezela bilkura presakotzat jotzea izango litzateke, nolabait Ordenantzen alegazioak sartu zirenetik, aurkeztutako argumentuak landu behar izan dira, bestetik alkatetza honek udalari dedikatzen dion denbora zatikako da. Zinegotzi guztien agendak ere lana dela eta nolabait bideratu behar dira saio honetara eta bestalde kontutan hartuta Gipuzkoako Boletín Ofizialean publikatzeko epea abenduaren 31ean bukatzen dela beharrezkoa zen pleno hau epe laburrean egitea. Honekin, nolabait pleno honen konbokatoria onartzea izango litzateke".*

Urgentziazko bilkura bozketara jarriaz, partaideek aho batez onetsi egiten dute.

Sometida a votación la declaración de urgencia de la sesión es aprobada por unanimidad de los reunidos.

**2.- 2006 URTERAKO UDAL ORDENANTZEI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK.**

2005eko azaroaren 10ean ospaturiko Udalbatzan 2006 urterako

Visto que el Pleno del Ayuntamiento celebrado con fecha 10 de

zerga eta tasen Ordenantza Fiskalen modifikazioari buruz behin behineko onespena onetsi zela ikusi ondoren.

Espedientea jendaurrean jarri ondoren, epe habilean bi idatzi-alegazio aurkeztu dira.

Idazkari-Kontuhartzailearen txostena ikusi ondoren.

2005.12.29ko Hazienda Batzordearen ondorengo diktamina ikusi ondoren:

noviembre de 2005 aprobó inicialmente modificar las Ordenanzas Fiscales de los impuestos y tasas para el año 2006.

Visto que sometido el expediente a exposición pública se han presentado dos escritos de alegaciones en tiempo hábil.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

Visto el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda de fecha 29.12.2005 que dice como sigue:

"*ALEGAZIOEN INGURUKO AZALPENAK*

*A) ANOETARROK AUZOLANEAN HERRI PLATAFORMAREN ESKAERA-IDATZIA:*

*Lau puntu nagusitan oinarrituta aurkezten du bere idatzia. Eman beharreko erantzuna udal gobernuko ordezkariek zehaztu beharko badute ere, jarraian aipatzen diren irizpideen arabera erantzun egokia eman daiteke:*

*a) 2006 urteko Ordenantzen prestaketarako ez da inolako bide ezkuturik erabili. Beraren prestaketan "Ley 7/1985 de Bases del Régimen Local"-ek bere 49. artikuluan zehaztutako urratsak eta "Real Decreto Legislatiuvo 2/2004 por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales"-ek bere 15-19 artikuluetan zehaztutakoak jarraitu dira.*

*b) Azterketa ekonomikoari dagokionez, behin behineko erabakia hartzeko 2005ko azaroaren 2ko Ogasun batzorderako prestatutako txostena erabili da eta berau Udaletxeko Sail ezberdinen aportazioekin osatua izan da.*

*c) Antzuolako herria konparaketarako erabili izanaren arrazoia ainbat elementu identifikatibo antzekoak izatean datza, eta beste ainbat herri ere kontutan hartu dira ohizkoa denez, objektibo erabili diren; hala nola, biztanleriari dagokionez herri biek duten antzekotasuna, bai industri sarean eta laborantza gaian ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalgida txostenaren bitartez, herri bien ezaugarriak oinarritzat hartuz, publiko egindako zerga datuak eta Presio Fiskala kontzeptuaren pean adierazten direnak.*

*d) Susmoei dagokionez, susmoak susmo dira eta inolaz datu objektiboak.*

*B) IÑAKI ITURRIOZ URKIDIZAR JAUNAREN ALEGAZIO EDO ESKAERA-IDATZIA:*

*Alegazio hauei erantzun bat ematekotan egiten dira zehaztapenak ondoko txosten honetan*

*Iñaki Iturrioz jaunaren eskaera-idatziari dagokionez, bi bloke bereizi behar dira, bata zerga ezberdinei dagokiona eta bestea, tasen ingurukoa.*

*Anoetako Udalak, beste edozein udala bezala, tributu propioak ditu eta hauek udal ordenantzen bidez xedatzen dira.*

*Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen FORU ARAUA Erregulatzailearen 15. artikuluan zehazten dira udal ordenantza fiskalek barruhartu behar dituzten gutxienekoak eta gutxieneko hauek legeak eskatu bezala jasotzen ditu egun indarrean den Anoetako Udal Ordenantza Fiskalak eta baita 2006 urterako behin behineko izaeraz onartutako ordenantzak.*

*Beraz, aipatutako legean 16. artikuluak xedaturikoari jarraituz, ordenantzak behin betiko izaeraz onartu aurretik aurkeztu diren erreklamazio ezberdinak aztertu ondoren Anoetako Udalbatzak luzatzen du ondorengo proposamena.*

*a)* *Zergak*

*Zergei dagokionez, aipatu Foru Arauak ez du txosten-ekonomikoaren inguruko aipamenik egiten. Beraz, Iñaki Iturrioz jaunak 25. artikulua oinarritzat hartuz txosten-ekonomikoari buruz bere idatzian egiten duen erreferentzia oro tasen inguruko eskabideei lotua dagoela ulertu beharra dago.*

*Honela, zerga kuota ezberdinak ezartzerakoan jarraitutako irizpideen inguruan esaten dena hartu beharko da kontutan hemen.*

*Udal arduradunak Antzuolako udala erreferentzi gisa hartu izanaren arrazoia da ainbat elementu identifikatibo antzekoak izatean datza, eta beste ainbat herri ere kontutan hartu dira ohizkoa denez, Alegia eta Amezketako udalak erreferentzia gisa ez erabiltzeak ere badu bere arrazoia, Lehena biztanle kopuru aldetik Anoetakoaren antzekoak bada ere, gainontzeko ezaugarriak ez dituzte ain berdinak, adibidez sare industrialari dagokionez. Horregatik, Anoetako Udalarekin antzekotasun gehien duen udalerria aukeratu eta erreferentziatzat hartzerakoan Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalgida bitartez zehaztutako irizpide objektiboak jarraitu dira, hala nola, Presio Fiskalaren datua (zeina neronek idatzitako txostenean definitzen den).*

*Bestetik, era orokorrean KPIa aplikatzea guztiz arrazoizkoa da eta honetarako ez da arrazoi berezirik eman beharrik, izan ere EUSTATek kaleratutako indizea era orokorrean aplikatzen baita esparru guztietan. Hau da, eragile ekonomikoorok aplikatzen du automatikoki KPIaren igoera.*

*Azkenik, zenbait zergetan izandako igoerak jada 2005 urteko ordenantzei begira 2004ko azaroko Hazienda Batzordean hartutako konpromisoekin guztiz koherenteak eta hauen jarraipen bezala ulertu behar dira. Honen adibide gisa, Ondasun Higiezinei buruzko zergaren kasua.*

*b)* *Tasak*

*Tasei dagokionez berriz, 2006 urteko ordenantzen barnean aurreikusitako tasa ezberdinen inguruan aplikatutako igoerek udal batzorde ezberdinek egindako barne analisietan dute beren jatorria.*

*Tasen kasuan bai, zergen kasuan ez bezala, Foru Arauak txosten ekonomikoaren beharra azpimarratzen du.*

*Tasen barnean beste bi talde aurkitzen dugu:*

*a)* *Zerbitzu Publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea.*

*Hirigintza Lizentziak emateagatiko tasa dela eta, Iñaki Iturrioz jaunak onartzen duen bezala, gai honek eragiten duen lan bolumena handia da, Adibide moduan; 2006ko kopuru minimoa 11€takoa da eta Orbinox gaian 3093€ Arkitektoaren honorarioak, arlo juridikoa beste ainbat gai kontutan hartu gabe.*

*2004koak egiterakoan giltzarri bezala 2002 – 2003koak hartu ziren oinarritzat, eta dato fidagarriak ditugun neurrian bagoaz aberasten azterketa hauek, 2005 eta 2006 geroz eta osatuagoak.*

*Udal hilerria dela eta, Anoetako Udalaren zoritxarrerako ez da zerbitzuaren inguruko esleipenik burutu azken unean eta Anoetako Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik. Gainera, KPIa aplikatzeaz gain, hileta zerbitzuak direla eta gai honek daramatzan ainbat gastuz beste Zerbitzu Anitzeko Langilearen bitartez udalari eragiten dion kostua hartu da kontutan.*

*Ur horniduragatiko tasa dela eta, infraestrukturen mantenurako tasa berria aplikatzea erabaki da eta erabaki hau arrazoitzeko Ur Kontsortzioak herriko ur-sarearen inguruan egindako txostenaren edukia hartu da kontuan. Hod8i gehienak oso egoera kaxkarrean daude eta etorkizun hurbil batean mantenu gastu handiak aurreikus daitezke. Hala ere, lortuko litzatekeen diru sarrerak ez lirateke inolaz ere gastu errealak estaltzeko nahikoak izango eta beraz, sor handiak sortuko dira kontzeptu hau dela eta horregatik tasa berri honen bitartez zulo hori ahal den neurrian txikiagotzeko nahia.*

*Zaborbilketa zerbitzua guztiz defizitarioa da udalarentzako eta Mankomunitatearen bidez zerbitzu integrala jasotzeak ez du esan nahi kostua txikiagoa izango denik, Zerbitzua hobeagoa izango da, osoagoa eta egungo zaborbilketa politikari lotua, baina inolaz ere merkeagoa. Datu objektibo bezala Mankomunitateak berak helarazitako datu ekonomikoak ditugu.*

*Kultur, Kirol eta Gizarte Mailako Jarduerak direla eta, tasa ezartzerako orduan Kultura Batzordeak egindako azterketa ekonomikoa hartu da kontutan.*

*Beraz, argudioak kontutan hartuz eta bertan adierazitako datuak dokumentu bidez adieraziz, argi geratzen da tasen inguruko erabakiak datu ekonomiko eta hainbat txosten kontutan hartuz hartuak izan direla eta inolaz ere arbitrarioki. Beraz, interesdunak bere idatzia bidez aurkakoa adierazi arren, erabakiak hartzerako orduan Foru Aldundiak bere 25. artikuluan eskatu bezala hartuak izan dira.*

*b) Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasen inguruko ordenantza arautzailea.*

*Atal honetan, KPIa plikatzeaz aparte, ez da bestelako aldaketarik proposatu.*

***C) ONDORIO GISA:***

*Guzti honegatik eta ondorio gisa azpimarra dezakegu, bai zerga eta bai tasa ezberdinen inguruan hartutako erabakiek oinarri legala dutela. Hau da, honako lege eta artikuluak kontutan hartu direla berauen behin behineko onarpenerako eta kopuru ezberdinak zehazterako orduan:*

- *"Ley 7/1985 de Bases del Régimen Local"-ek bere 49. artikuluan zehaztutako urratsak.*
- *"Real Decreto Legislativo 2/2004 por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales"-ek bere 15-19 artikuluetan zehaztutakoak.*
- *Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen FORU ARAUA Erregulatzaileak bere 15., 16.3, 16.4, 17.1, 18.1, 18.2, 19., 20., 24. eta 25. artikuluan xedaturikoa.*

*PROPOSAMENA UDALBATZARI*

*Alegazioak aztertu ondoren Ogasun batzordearen txostenaren arabera Udalbatza honi proposatzen zaiona da:*

*A) Aurkeztutako alegazioak ez onartzea.*
*B) Behin betiko onarpena 2006ko ordenatzei fikalei ematea".*

Alkate jaunak bertaratutakoei ondorengoa adierazten die:

El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes lo siguiente:

*"Alegazioak egin dira. Puntuz puntu landu dira eta txostena banatu da nahiz eta aipatu dudan bezala presa dela eta ezin izan da nahiko litzatekeen margenarekin ibili".*

Aipaturiko diktamina bozketara eraman ondoren, partaideek aho batez ondorengoa onesten dute:

Lehena.- Gaurko egunez (2005.12.29) ospaturiko Hazienda Batzordearen diktamina dela medio, aurkezturiko alegazioak ezestea.
Bigarren.- 2006 urteko Ordenantza fiskalen zerga eta tasen modifikazioak behin betiko eran onestea, 2005eko azaroaren 10eko udalbatzak onetsiriko akordioaren arabera.

Sometido el referido dictamen a votación se adopta por unanimidad el siguiente acuerdo:

Primero.- Desestimar las alegaciones presentadas en base al dictamen de la Comisión de Hacienda de fecha de hoy (29.12.05).
Segundo.- Aprobar definitivamente la modificación de las Ordenanzas Fiscales de los impuestos y tasas para el año 2006 con sujeción al acuerdo aprobado en sesión plenaria celebrada con fecha 10 de noviembre de 2005.

## 3.- AREA 1 ETA AREA 2 TRUKAKETA HITZARMENA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Arau Subsidioko Area 1ean Udalak dituen lur-sail batzuk Arridon, S.L-k Area 19an dituen beste batzuengatik eta 140 m2ko lokal batengatik trukatze espedientea ikusi ondoren.

Visto el expediente de permuta de terrenos propiedad municipal, sitos en el Area 1 de las Normas Subsidiarias, por terrenos comprendidos en el Area 19 de las Normas Subsidiarias y un local de 140 m2., ambos propiedad de Arridon S.L.

2005eko maiatzaren 5ean ospaturiko Udalbatzak, 2002ko maiatzaren 28ko Udalbatzan onetsiriko Hitzarmen-trukaketaren ondorengo aldaketak egitea onetsi zuela ikusi ondoren:

Visto que el Pleno Municipal, en sesión celebrada el día 5 de mayo de 2.005, acordó aprobar las siguientes modificaciones del Convenio-permuta aprobado en sesión plenaria celebrada el día 28 de mayo de 2.002:

1. ESATEN DUEN LEKUAN "Arridon, S.L-k Anoetako Udalari 140 m2ko lokal bat emango dio" ESAN BEHAR DU "Arridon S.L –k Anoetako Udalari 119 m2tako lokal bat eman behar dio".

2. ESATEN DUEN LEKUAN "Anoetako Udalak 89.657,72 euro ordainduko dizkio Arridon, S.L-ri" ESAN BEHAR DU Anoetako Udalak 59.060,72 euro ordainduko dizkio Arridon, S.L-ri"".

Alkate jaunak aurkezturiko idatzia ikusi ondoren, akta honi 1 eranskin modura eransten dena ("Herriko plaza lokalaren gaian Arridonek luzatutako proposamenari buruzko txostena").

Herriko Plaza, 1 behean kokatzen den 119 m2tako lokal komertzialari buruz Udal aparejadoreak 2005eko azaroaren 25ean eginiko tasazioa ikusi ondoren, egoera planoa eta lokalaren planoa ere eransten zaizkio.

Idazkari-Kontuhartzailearen txostena ikusi ondoren.

Kontutan izanik, Anoetako Udalak Arridon, S.Lri 2002ko abuztuaren 20ean, 2002ko maiatzaren 28ko Udalbatzan onetsiriko Hitzarmen-Trukaketaren arabera, 10.097,- euro ordaindu zizkiola udalari eman behar zion lokalaren BEZ-a zela eta.

Alkate jaunak Otermin zinegotzi jaunari hitza ematen dio eta honek ondorengoa adierazten die bertaratutakoei:

"1.- DONDE DICE "que Arridon S.L. entregará al Ayuntamiento de Anoeta un local de 140 m2."DEBE DECIR "que Arridon S.L entregará al Ayuntamiento de Anoeta un local de 119 m2".

2.- DONDE DICE "que el Ayuntamiento de Anoeta abonará a Arridon, S.L la cantidad de 89.657,72 euros" DEBE DECIR "que el Ayuntamiento de Anoeta abonará a Arridón S.L. la cantidad de 59.060,72 euros"".

Visto el escrito presentado por el Sr. Alcalde, que se adjunta como anexo nº 1 a la presente acta ("Herriko plaza lokalaren gaian Arridonek luzatutako proposamenari buruzko txostena")

Vista la tasación del local comercial de 119 m2. ubicado en la planta baja de Herriko plaza 1, realizada por el Aparejador municipal, con fecha 25 de noviembre de 2005, a la que se adjunta plano de situación y plano del local.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

Resultando que el Ayuntamiento de Anoeta, con fecha 20 de agosto de 2002, abono a Arridón S.L la cantidad de 10.097,- euros en concepto de I.V.A por el local a entregar al Ayuntamiento, de conformidad con el Convenio-permuta aprobado en sesión plenaria celebrada el día 28-05-2002.

El Sr. Alcalde cede la palabra al Concejal Sr. Otermin , el cual manifiesta a los presentes lo siguiente:

“Gai hau tratatu zen 20eko Hirigintza Batzordean. Arridon etorri zitzaigun proposamen bat eginez, txostenean agertzen dena, monetarizatzeko lehenago onartu zen hitzarmena, berarekin sinatuta dagoen hitzarmena. Eskatu zitzaion aparejadoreari txosten ekonomiko bat, hor azaltzen dena, pasa zaizue, bertan aldameneko lokalean, Kutxa, oinarrituta egin du txosten ekonomikoa eta hor oinarrituta ere Hirigintza Batzordearen tratua, baduzue txostena, onartu zen printzipioz ona zela udalarentzako onartzea bere proposamena. Alde batetik lokalaren beharra ez genuen ikusten. Gaur egun, udalak dituen lokalak ematen duen zerbitzua emateko nahikoak dira eta ikusita ere babes ofizialeko etxeetan beste bi lokal joango direla, Lasarbe gunean beste ekipamendu soziokulturala egongo dela, ez genion erabilpenik ikusten lokal honi. Orduan proposatzen dena da Arridonen proposamena onartzea eta da guk hitzarmena betetzeko orain momentu honetan ordaindu behar zena ordaindu ordez berak ordaintzea 84.000 euro horrela lokala bere esku geratzeko. Kontuhartzailea konturatu da espedientean agertzen dela bere momentuan Arridoni 10.097 euro BEZ modura ordaindu zitzaizkiola. Beraz, momentu honetan trasmisioa ez bada egiten, plenoari proposatzen zaiona da Hirigintza Batzordean proposatu zena gehi BEZ-aren zenbateko hau ere Arridoni eskatzea. Azken finean trasmisioa ez bada egiten BEZa ez dago ordaindu beharrik. Ordaindua dago, beraz Udalari itzultzea”.

2002ko maiatzaren 28ko Udalbatzan onetsiriko eta 2005eko maiatzaren 5ean artezturiko hitzarmen aldaketak bozketara eramanez,

Partaideek aho batez ondorengoa erabaki dute:

Lehenengo.- 2002ko maiatzaren 28ko Udalbatzan onetsiriko eta 2005eko maiatzaren 5ean artezturiko hitzarmenari ondorengo aldaketak egitea:

“1.- ESATEN DUEN LEKUAN “Arridon, S.L-ek Anoetako Udalara 119 m2tako lokal bat emango dio” ESAN BEHAR DU “Arridonek Udalari 84.000 euro ordainduko dizkio”

2.- EZABATU “ Anoetako Udalak Arridon, S.L-ri 59.060,72 euro ordainduko dizkio””.

Bigarren.- Udalak, akordio honetan modifikatzen den lokalarengatik 2002ko

Sometido a votación la modificación del Convenio aprobado en sesión Plenaria de fecha 28-05-2002 y rectificado por acuerdo adoptado en sesión Plenaria de fecha 05 de mayo de 2005 .

La Corporación acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Modificar el Convenio-permuta aprobado en sesión Plenaria celebrada el día 28 de mayo de 2002 y a su vez modificado en sesión Plenaria celebrada el día 5 mayo de 2005, en el siguiente sentido:

" 1.- DONDE DICE “que Arridón, S.L. entregará al Ayuntamiento de Anoeta un local de 119 m2.” DEBE DECIR “que Arridon abonará al Ayuntamiento la cantidad de 84.000,- euros.”

2.- SUPRIMIR “que el Ayuntamiento de Anoeta abonará a Arridón S.L. la cantidad de 59.060,72 euros.””

Segundo.- Requerir a Arridón S.L para que proceda a devolver al Ayuntamiento

abuztuaren 20ean BEZ kontzeptuarengatik ordainduriko 10.097,-eurotako zenbateko Arridon, S.L-ri itzul dezala eskatzea.

la cantidad de DIEZ MIL NOVENTA Y SIETE (10.097,-) euros , en concepto de I.V.A. del local objeto de modificación en el presente acuerdo abonadas por este Ayuntamiento con fecha 20 de agosto de 2002.

Gero, bertaratutako batek hitza eskatzen du ondorengoa adierazteko:

A continuación uno de los asistentes a la sesión solicita la palabra para intervenir en la misma:

*"Hirugarren puntuan utzi zaigun dokumentazioan hiru balorazio agertzen dira, jakin nahi genuke kopuruak nola ateratzen dira".*

**Otermin Zinegotzi jaunak erantzuten du:**

*"Lehenengo 140 m2tako lokal batek 10.500.000 pztatan erosita eta hortik ateratzen den balorazioa hau da 450,75 m2ko , aurreko Korporazioak kontutan izan zuen balorazioa da. Bigarrena, beste pleno batean aldaketa bat egin zen Arridonek behar zuela zati bat eta aldaketa txiki bat egin zen, horren arabera 1.457 m2ko ateratzen da eta hirugarren kasua, 1502,53 m2, Andresek egin duen balorazio ekonomikoa. Kontutan hartu kasu honetan Kutxaren lokala dela eta nahiz eta bat eta bestea muganteak izan ez dira berdin berdinak baina azken balorazioaren oinarria Kutxaren prezioa da".*

**Alkate jaunak dio:**

*"Orain onartuko dugu 84.000 gehii bere garaiean ordaindu genion BEZ-a".*

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, eguerdiko hamabiak direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.